Hizkuntza Eskubideen egoera 2019

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN
BEHATOKIA

Izenburua: HIZKUNTZA ESKUBIDEEN EGOERA 2019
Mota: urteko txostena
Egilea: HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA
Argitaratze data: 2020ko apirila
Argitalpen digitala: **www.behatokia.eus** atarian eskuragarri

Oharra: argitalpen honetan agertzen diren datuak, informazioa eta abar baliatu nahi izanez gero, iturria aipatzea eskertuko genuke.

Hitzaurrea 4

Sarrera 5

Herritarren jarrera akuilu 6

01 Osasungintza 9

02 Herrizaingoa eta Segurtasuna 15

03 Justizia 19

04 Hezkuntza 22

05 Administrazio jarduera orokorrak 26

06 Udalak eta Herriko Etxeak 29

07 Lan mundua 33

08 Kultura, aisia eta kirola 36

09 Kontsumo zerbitzuak eta interes orokorreko zerbitzuak 40

10 Ondorio nagusiak 45

11 Datuak 49

Askotan esan izan dugu giza eskubideen jagole diren nazioarteko instituzio garrantzitsuenek, Nazio Batuen Erakundeak eta Europako Kontseiluak esaterako, ez dutela oraindik garatu egoera gutxituan dauden hizkuntza-komunitateen eskubideak bermatzeko tresna eragingarririk.

Are gehiago, baieztapen horren sokari tiraka, Europa osoko gizarte eragileok, hogeita hamar hizkuntza gutxitu ordezkatzen dugun ehunetik gora eragilek hain zuzen, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa aurkeztu genuen 2016ko abenduan Donostian. Instituzioetan zegoen gabezia bat gizarte eragileen ikuspegitik bete nahi izan genuen.

Dena dela, egun tresna eragingarririk ez egoteak ez du esan nahi, inondik inora ez, tresna interesgarririk ez dagoenik, eta esan behar dugu egun gurea bezalako hizkuntzen babeserako dagoen tresna interesgarrienetako bat Europako Kontseiluaren Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna dela.

Gurean, bi Estatuek sinatu zuten aipatu dokumentua, baina Espainiakoak besterik ez zuen berretsi eta, hortaz, konpromisoak hartu. 2002an jarri zen indarrean Gutuna, eta esan behar dugu baduela ezaugarri interesgarria, hain zuzen ere, gizarte eragileei aukera eskaintzen zaiela betetze-mailari buruzko txostena aurkezteko, bai eta balorazioa egiten duen Adituen Batzordearekin biltzeko ere.

Gogoan dut, 2003an lehen ebaluazioa egin zenean, Behatokiaren izenean Kontseiluko orduko idazkari nagusiarekin parte hartu nuela Adituen Batzordearekin izandako bileran. Gogoan dut, 2018ko abenduan bosgarren ebaluazioa egin zenean, Kontseiluaren izenean Behatokiko orduko zuzendariarekin parte hartu nuela Adituen Batzordearekin izandako bileran.

Bost ebaluazio-prozesu izan dira eta horietan guztietan Behatokiak txostena helarazi die adituei. Are gehiago, Gutuna bete ez den kasuetan, literaturaz harago, Behatokiak kasu zehatzak, gertaera zehatzak, urraketa zehatzak helarazi izan dizkio Adituen Batzordeari. Finean, egitatea da konpromisoak betetzen diren ala ez egiaztatzeko modurik balekoena.

Iazko udazkenean, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak zein Adituen Batzordeak bosgarren ebaluazioaren karira egindako gomendioei begiratuz gero, Behatokiak Urteko Txostenean jaso dituen ondorioen antzekoak direla ohartuko zarete. Eta horrek hiru hausnargai sorrarazten dit:

- Herritarrak hizkuntza-eskubideen urraketen aurrean ahalduntzea ezinbestekoa dela. Horrela, eskubideen urraketa gertatzen zaienean eta horren berri ematean, informazio-iturri ikaragarria sortzen dela nazioarteko instituzioei eskubideen benetako egoeraren berri helarazteko.
- Gizarte eragileek funtzio garrantzitsua hartzen dutela nazioarteko itunetan botere publikoek hartzen dituzten konpromisoak egiazki betetzen diren egiaztatzeko.
- Behatokiak ekarpen oso garrantzitsua egiten duela herritarrei eskubideen urraketei konponbidea emateko tresnak eskainiz, bai eta informazio hori baliatuz nazioarteko erakundeei egoeraren berri emanez ere. Are gehiago, txosten honek ondorioetan jaso bezala, Behatokiaren antzeko irakurketa egin du Europako Kontseiluak.

Horrexegatik, hain zuzen ere, 2019ko Urteko Txostenaren ondorioak irakurri ditudanean Behatokiaren lanak ezinbestekoa izaten jarraitzen duela iruditu zait. Euskaldunon eskubideen egoerari buruzko azterketa independenteak egiten dituen gizarte-eragilea behar dugu eskubideen bermea ekarriko duten politiken ezaugarriak definitzen laguntzeko.

Paul Bilbao Sarria
Hizkuntz Eskubideen Behatokiko lehendakaria

Euskararen herrian euskaraz mintzatzeko, administrazioei zuzendu eta administrazioetatik zerbitzuak jasotzeko, (osasuna, hezkuntza, justizia, edo beste edozein zerbitzu), bai eta orokorrean, jendarteak eskaintzen dituen aukerak euskaraz baliatzeko eskubideak babestea da Behatokiaren xedea.

Horretarako **Euskararen Telefonoa/Akuilari** zerbitzua eskaintzen dio Hizkuntz Eskubideen Behatokiak doan euskal hiztunen komunitate osoari. Zerbitzu honen bidez Behatokiak Administrazioei, enpresei eta edozein motatako entitateei herritarrek zuzendutako kexak, zorion mezuak eta kontsultak bideratzen ditu.

Administrazio publikoen eremuan zein sektore sozioekonomikoan, euskaraz jarduteko eskubidea errespetatu ez zaienean herritarrak **Euskararen Telefonoa/Akuilari**ren bidez Behatokira idatzi edota kexa bat igortzen duenean, jarraipena egin ahal izateko dosier bat ireki eta zenbaki bat egokitzen dio jasotako kasu bakoitzari. Behatokiak zerbitzua erabiltzen duten pertsonen konfidentzialtasuna gordetzen du baina ez du kexa anonimorik onartzen.

Horrela bada, ondorengo lerro hauetan islatuko dugun azterketa herritarrek Behatokira helarazitako gertaeretan oinarritzen da, beraiek euren egunerokoan izan dituzten bizipenak dira azterlan honen iturria eta euskal hiztunen benetako egoerara, egunerokotasunera, gerturatzen gaituzte.

Herritarren jarrera akuilu

Herritarrei askotan euskara erabiltzeko mezua helarazten zaie, baina euskara erabiliz euskaraz bizitzeko hautua egiten dutenean, aurrean oso bestelako egoera aurkitzen dute. Kalera irtetearekin batera, dela lana, dela aisia, dela hezkuntza, direla tramite administratiboak zein bestelako harremanak izatean, oztopo, ezintasun eta egoera makur askori aurre egin behar izaten diote.

Batzuetan herritarrak burumakur, etsiturik edo beraien eskubideen jabe izan gabe aurkitzen ditugu, baina askok egoerari buelta emateko iniziatiba hartzen dute. Momentu horretan babesa eta defentsa berebizikoak bilakatzen dira eta hor kokatzen dugu Hizkuntz Eskubideen Behatokiko jardunaren alde garrantzitsu bat.

Herritarrek hartutako hautu "txiki" horrek errealitate asko baldintza ditzake eta herritarrek errealitate hori azaleratzeagatik, neurri zuzentzaile ugari lortzen dira. Aldaketa behetik gorakoa izaten da gehienetan, eta euskararen prestigioa handitzeko, babesteko eta sustatzeko berebizikoak izaten ari dira herritarrengandik sortutako mugimendu, iniziatiba eta jarrerak.

709-2019

..."Sentitzen dugu Terminalaren erabiltzaileak aipatzen duena gertatu izana, baita egoera horrek ekarri ahal dizkion arazoak ere. Jakin ezazue, hitz egin dugula geltokiko informazio-pantailaren funtzionamendua kudeatzen duen enpresarekin eta informazioa euskaraz ere jarri dela.

Eskertuko genizueke kexa azaldu dizuen herritarrari gure barkamen-eskaera helaraziko bazeniote."

Informazio edota zerbitzu batzuek izaera eta sentsibilitate bereziak dituzte, eta herritarren jarreren bidez egindako lorpenek balio berezia hartzen dute. Adibidez, osasungintzako alorrean emandakoak.

Alor sozioekonomikoan, euskarak beharrezko lege babesa ez duenez, herritarren jarrera berebizikoa bilakatzen da, enpresek bere bezeroen hizkuntza-eskubideak kontuan izaterako orduan. Izan ere, bezeroei eskaintzen zaien arreta eta zerbitzuaren kalitatea hobetze aldera hartutako neurriak ere badira. Bezeroarekiko errespetua, gertutasuna eta enpresaren erabakietan bezeroa kontuan hartzen dela erakusteko modua bilakatzen da. Are gehiago, bezeroak enpresaren marka edo irudiarekiko duen iritzia hobetzen laguntzen du zenbaitetan.

Internazionalizazioa garatu den heinean, euskarak bazterrera bidaltzeko joera izan da eremu sozioekonomikoan eta garrantzitsua da nazioarteko arloan mugitzen diren enpresek eta erakundeek ere euskararen babesean eta herritarren eskubideen bermean urratsak egitea.

484-2019

Dosier honi dagozkionak konpondu dituztela jakin eragiten dizuet. Durangoko Landako II kiroldegiko tabernan; kostata, baina pozgarria da orain:

-Badute Berria egunkaria
-Arbelekoa orain euskaraz ere badago.
-Mahai baten gainean karta modukoa dago eta elebiduna da.

519-2019

Basque Culinary Center-en euskarazko arreta bermatzeko asmoz, gutxienez euskaraz hitz egiten eta ulertzen duen langile bat izaten da uneoro. Hala ere, zuen idatziaren bidez, protokoloa berriz aztertu eta indartu egin dugu, egoera hau errepikatu ez dadin.





Honen harira, Ikea enpresari ere zuzendutako hainbat kexa jaso izan ditugu bere web orrialdean euskarazko aukerarik ematen ez zuela aipatuaz. Herritarren kexak medio, katalogoaz gain, herritarrek web guneko informazioa ere euskaraz jaso dezakete. Hala ere, oraindik asko dago egiteko, batik bat, euskarazko zuzeneko arretari zein telefono bidezkoari dagokienez.



Herritarren jarrera eta herritarrek bideratzen dituzten kexak hizkuntza-eskubideen egoera hobetze bidean egindako lehen pausu bezala hartu behar ditugu, eta ez liskar edo gatazka sortzaile bezala. Herritar eta erakunde publiko zein pribatuen parte diren pertsona guztien artean sortzen diren egoera, arazo zein oztopoak aztertu eta gogoeta egin behar dugu dagozkien neurri egokiak hartzeko helburuz.

Bestalde, aipatzekoak dira 2019an herritar zein erakunde ezberdinen aldetik antolatutako ekimen, mobilizazio zein aldarrikapenak. Hala nola, Euskararen aurkako epaiaren alde Nafarroan Kontseiluak deitutako elkarteratzea, Parisen Abenduan izandako Gutxiagotutako Hizkuntzen aldeko manifestazioa, Iruñeko ordenantzaren aldaketaren aurka deitutako mobilizazioak, Nafarroako hainbat gurasok beraien seme-alabek duten euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatzeko deitutakoak edo EAE-n segurtasun indarrekin izandako hizkuntza-eskubide urraketak salatzeko mobilizazioak besteak beste.

Gure jarduera eta herritarren jarreraz gaindi, hizkuntza-ohituretan eragin eta horiek aldatzeko ekimen ezberdinak baliatzea ere beharrezkoa da. Horren adibide dugu 2020 urtearen bukaeran izango den "Euskaraldiaren" bigarren edizioaren prestaketekin lotutako jarduera eta aktibazio guztiak.

01 Osasungintza

Osasungintza

Osasunaz ari garenean, gizarte osoaren ongizateaz ari gara, afera kolektibo eta indibiduala den heinean, erakunde publikoek osasun-zerbitzuak eta berauei lotutako jarduera, formazio zein ekimen orotan zerbitzu egokiena bermatzeko beharra dute. Osasun asistentzia egokia izateko eskubideaz ari garenean, herritarren berezko hizkuntzan emandako asistentziaz ari gara. Zerbitzuak berme gehienak izan ditzan, mezuak hartzailearengana era egokienean helduko direla ziurtatu behar da eta horretan, euskaldunon hizkuntza-eskubideen bermatzeak berebiziko garrantzia du. Era berean, zerbitzuaren hartzaileak bere hizkuntza (eta, gainera, berezkoa dena) erabiltzeko aukera izanik, hobe helaraziko dio profesionalari gaixoak azaldu nahi diona eta, era berean, profesionalak gaixoa ulertzeko gaitasuna izateak diagnosi eta tratamendu egokiago bat egitea bidera dezake. Hortaz, zerbitzu egokiena emate aldera hizkuntzaren alorrean erabaki eta neurri ugari falta dira oraindik.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, osasun-asistentzia euskaraz jasotzeko eskubidea legez aitorturik izatea eta asistentzia hori euskaraz jaso nahi duela eskaera egina izatea ez da nahikoa osasun-arreta euskaraz jasotzeko.

4-2019

Osakidetzako Arantzazu ospitale psikiatriko infantileko pertsonal profesionala erdalduna da. Nire alaba gaixotasun larriarekin ingresatu behar izan dugu urtarrilaren 26an eta artatu duten psikiatra eta psikologoa erdaldunak dira. Alaba euskal hiztuna da eta zailtasun batzuk ditu erdaraz hitz egiteko. Lotsagarria eta kezkagarria iruditzen zait 2019an haurren Gipuzkoako ospitale psikiatrikoan profesional euskaldunak ez izatea. Hizkuntza eskubideen beste urraketa mingarri bat gobernu honekin. Honek ezin du horrela jarraitu. Alabak jasaten duen gaixotasunaren sufrimenduaz aparte, hau jasan behar izatea negargarria da.

"Osasun asistentzia egokia izateko eskubideaz ari garenean, herritarren berezko hizkuntzan emandakoaz ari gara"

Osakidetzak kanpaina bat jarri zuen martxan herritarrei lehentasunezko hizkuntza aukeratzeko hautuari buruz ohartarazteko. Osakidetzaren arabera, profesional elebidunak esleituko zaizkie lehentasunezko hizkuntzatzat euskara aukeratu duten pertsonei, hala nahi izanez gero. Hala ere, pazienteak euskaraz komunikatu nahi dutela adierazten dutenak gero eta gehiago izan arren, Osakidetzak ez die bermatzen arreta euskaraz jasotzea.

539-2019

Gaur goizean Solokoetxeko (Bilbo) Osasun Zentroan egon naiz, nire haurdunaldiaren 38. astean. 28. asteko errebisioa nire mediku euskaldunak ez zeukan lekurik eta erdaldun batekin egitea onartu nuen. Hurrengo hitzordua, nik mediku euskaldunarekin eskatu arren, dagoeneko erdaldunarekin eman zidaten. Gaur, bigarrenez, mediku euskaldunak niri ondoen zetorkidan egunean libre zeukan, baina mediku erdaldunaren txostenean beste egun bat zehaztuta zetorren. Administrazioko langileak gutxietsi nau, berarekin gaztelaniaz nenbilela eta arazorik ez zegoela esanez. Lankide bati ere horixe esan dio, altuan, nik entzuteko. Mediku erdaldunari deitu dio, ia beste egun batean hitzordurik eman ahal izango zidan galdetuz eta, bide batez, bota dio nik beste ginekologoarekin gura dudala "euskararen kontuagatik". Azkenean, datorren asteko hitzordua ginekologoa erdaldunarekin izango dut, laugarrena, eta giroa nahastuta egon daiteke.

Arreta-zerbitzuari dagozkienak izan dira beste behin kexarik gehienak. Egokitu zaien familia-medikuarekin, pediatrarekin, erizainarekin euskaraz jarduteko zailtasunak izan dituztela salatu baitute herritarrek. Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Planean lehen mailako arreta-gune horietan euskaraz aritzeko aukera bermatzea lehentasunezkoa baldin bada ere, euskal hiztunentzako egoera normaltasunetik urrun dago oraindik.

634-2019

Donostiako Alde zaharreko anbulategiaren pediatria arloan, umeen zainketarako nonbait erabilgarriak diren kurtsoei buruzko informazioa gaztelania hutsean dago. Azken bi urte eta erdian gutxienez ez da pediatra euskaldunik egon anbulategian. Bat ere ez da gai haurrei euskaraz egiteko.

Osasun-arreta euskaraz jasotzeko oztopoez gain, harrerako langileekin edota administrariekin, zuzeneko harreran nahiz telefonoz, euskaraz jarduteko zailtasunak izan dituzte zerbitzu-hartzaileek.

381-2019

Hainbat aldiz deitu dut gaur odol emaileendako Osakidetzaren telefonora. Izan ere, duela egun batzuk odola eman dut eta egun horretan berean infekzio bat azaldu zait. Horren berri ematearren deitu dut telefonora. Hautatu ditut hizkuntza eta lurraldea (Bizkaia). Hainbat aldiz euskaraz deituta ez didate telefonoa hartu. Orduan, bada, deitu dut gaztelania aukeratuta eta berehala hartu dut telefonoa gizonezko batek, «¿Sí?». Eseki dut telefonoa. Deitu dut berriro, euskara hautatuz. Gizon berberak hartu du telefonoa, aldi honetan ere «¿Sí?» esanez. Espainol estandarrean galdetu diot: «¿Estoy llamando al servicio cántabro de salud?». «No», erantzun dit. Esan diot, bada: «Pues he elegido euskera y llamaba para comunicar una incidencia, pero ya no me da la gana. Estoy harto». Benetan ere nago gogaituta euskaldunoi ematen zaigun tratu txarraz.

Horrekin batera, irudian eta komunikazioan ere, osasun etxeetan erabiltzaileei informazioa emateko testu eta ohar labur askok eta askok gabeziak izan dituzte eta gaztelania hutsean egon direla jakinarazi diote Behatokiari.

Behar bezain beste profesional euskaldunen faltaren adierazle dira Behatokian jasotzen diren herritarren kexetariko batzuk. Areago nabarmentzen da egoera hori ordezkapen edo oporraldietan. Ordezkapenetarako profesional euskaldunak jartzen ez direnean, horiek lortzeko zailtasunak dituztela argudiatzen du Osakidetzak.



“Behar bezain beste profesional euskaldunen faltaren adierazle dira Behatokian jasotzen diren herritarren kexetariko batzuk”



427-2019

Uztailaren 27a, Donostiako Groseko anbulategia: analisi batzuk egin ondoren, uztailaren 27an nire familia medikuarekin (euskalduna, hala eskatuta) ordua hartzera joan nintzen. Bajan dago aspaldi honetan eta ordezko erdalduna jarri diote. Mediku euskalduna izatea eskubidea dudanez, pazientearen arreta zerbitzura jo nuen. Bertan nire kexa eta eskaera egin eta deituko zidatela agindu zidaten. Gaur arte, abuztuak 20. Gaur berriz jo dut arreta zerbitzura eta egiaztatu didate eurek abisua pasa ziotela arduradunari eta gaur berriro pasako diotela abisua. Hiru aste joan dira nire lehen bisitatik. Bigarren eskaerarekin berdin jokatuko ote dute?

> **“Herritarren zerbitzua euskaraz jaso nahi dutela adierazi arren, horrek ez die bermatzen hala izango dela”**

Osakidetzako langileen hizkuntza-eskubideen urraketek ere nabariak izaten jarraitzen dute. Barne-funtzionamendua zein beraien arteko harremanetan urraketak izaten dira.

Herritarrek zerbitzua euskaraz jaso nahi dutela adierazi arren, horrek ez die bermatzen hala izango dela eta Osakidetzak berme horren erantzule izan behar du.

Nafarroako osasun-zerbitzuetako alor askotan ia ezinezkoa da euskaraz arreta zein informazioa jasotzea. Euskararen legeak ezarritako “eremu euskaldunean” ere arazo berdinak erreproduzitzen dira. Oinarrizko arretan zein espezializazioetan izaten dira urraketak.

Nafarroako eremu batzuetan familia-mediku euskalduna izan arren, espezialistengana bideratzerakoan zailtasunak daude profesional elebidunak aurkitzeko.

Azkenik, azpimarratzekoa da herritarrek Osasunbideatik jasotako komunikazioak euskaraz jaso nahi direla berariaz adierazi arren, gaztelania hutsez igortzen zaiela informazioa hainbat kasutan.

73-2019

Arrotxapeako Osasun etxera joan naiz goizeko 8:15ean hitzordua eskatzera eta harreran ez naute euskaraz artatu. Ez zegoen euskaldunik.

Osakidetza

DEBAGOIENEKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATU
ORGANIZACION SANITARIA INTEGRADA ALTO DEB

ETENGABEKO PRESTAKUNTZA PLANA	2019 URTEA
PLAN DE FORMACIÓN CONTINUADA	AÑO 2019

APRENDIENDO A COMUNICAR Y COMUNICARNOS

NOIZ EMANGO DEN FECHAS IMPARTICIÓN	NON/LUGAR	INSKRIPZIO EPEA NOIZ ARTE PLAZO DE INSCRIPCIÓN HASTA
16, 23 y 30 mayo 2019	Salón Udalaitz	2 de mayo 2019

IRAUPENA DURACIÓN	PARTE-HARTZAILEEN KOP. Nº ASISTENTES	ORDUTEGIA/ HORARIO
9 h	20 alumnos	15:30-18:30

NORENTZAT/DIRIGIDO A: Médicos y Enfermeras

IZEN EMATEA/INSCRIPCIÓN:
La inscripción se realizara a través de Jakinsarea. Dirección:https://jakinsarea.osakidetza.net
Modalidad inscripción bajo solicitud

524-2019

Leitzako osasun etxean haurraren pediatria azterketa gaztelaniaz jaso dugu bost hilabetetan laugarren aldiz.

Idatzizko harremanei dagokienez, errezetak, tratamendu-orriak, oharrak, errotuluak, gaixotasun bati buruzko jarraibideak eta beste hainbat idatzi gaztelania hutsez egoteagatik eta jasotzeagatik kexatu dira herritarrak.

95-2019

Barañain II osasun-etxean ez ditugu euskaraz jaso hartu beharreko botikari buruzko jarraibideak.

Osasunbideako deialdietan, Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretuak esaten zuenak egoki bete gabe jarraitzen zuen, euskararik jakin gabe ere merezimendu puntu berdinak lor litezkeelako.

2019ko urrian aipatu Foru Dekretuari jarritako helegitearen sententzian epaileek legez kontrakotzat jo zituzten Dekretuaren 31., 35. eta 39. artikuluak eta laugarren xedapen iragankorra, Euskararen Foru Legearen kontrakoak direla argudiatuz. Ondorioz, zerbitzu zentraletako eta eremu mistoko lanpostuetan euskara meritu gisa aintzat hartzeko derrigortasunak kendu dute.

Nabaria da, beraz, Nafarroako Foru Erkidegoan indarrean den Euskararen Legea oztopo nagusia dela lurralde osoko osasungintza-sisteman berdintasunez hizkuntza-eskubideak bermatzeko neurriak hartze aldera. Legeak ezarritako eremu ez-euskaldunean atzerriko hizkuntzak meritu gisa baloratzen jarraitzen dute, euskararen kasuan, aldiz, meritu gisa kontuan ez hartzea edo hizkuntza horiek baino gutxiago kontuan hartua izatea gertatzen da.

Profesionalen gaitasun linguistikoak berebiziko garrantzia dauka herritarren hizkuntza-hautua bermatzeko eta herritarrei kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko, baina Osakidetzako hiru langiletik batek du ziurtatuta bere lanpostuari dagokion hizkuntza profila eta Osasunbidean, langile euskaldunen kopurua ez da %0,5era iristen. Gainera, aipatutako sententziak kopuru horren igoeraren kontrako norantzan jartzen gaitu.

Larritasuna are gehiago nabaritzen da osasungintzako alor garrantzitsu batzuetan, Nafarroako osasungintzako 2019-2021 planean aipatzen den bezala: Osasun mentaleko alorrean adibidez, Lizarran ez dago euskaraz dakien profesionalik, Tafallan profesional bakarra dago elebiduna eta Iruñerri osoan 23 profesional soilik dira gaixoak euskaraz artatu ahal izateko gaitasuna dutenak.

Bestalde, 2019an ere Nafarroako Unibertsitate Publikoan osasungintzarekin zerikusia duten ikasketak, euskaraz egiteko aukera aldarrikatzen jarraitzen dute, erizaintzako graduan bereziki.

Osasunbideako planaren arabera, herritarrei zerbitzuetan arreta elebiduna bermatzeari begirako neurrietan euskarazko profesionalen kopurua igotzea nahitaezkoa izan beharko litzateke.



02 Herrizaingoa eta segurtasuna

Herrizaingoa eta segurtasuna

2019an segurtasunaren alorrean izandako hizkuntza-eskubideen urraketengatik herritarrek aurreko batzuetan baino ondorio latzagoak pairatu dituzte, batik bat mozal legearen ezarpenarengatik. Ertzainei, Foruzainei, Estatuko poliziei zein herri desberdinetako udaltzainei zuzendutako kexak izan dira.

2019an ere errepikatzen dira herritarren pairatzen dituzten egoera eta gertaerak, bai kasu askotan segurtasun agenteen euskaraz komunikatzeko ezintasunengatik, bai eta herritarra egoki euskaraz ulertzeko gaitasun maila ezagatik ere. Herritarrek nabarmentzen dute euskaraz komunikatu nahi izatea eskatzeagatik erantzun txarrak zein oldarkorrak pairatu dituztela.

Polizia-etxeetako zuzeneko arreta zein telefono bidezkoan, hainbat inprimakietan, errepide-kontroletan zein agenteekin kalean gertatzen diren bestelako harremanetan, hizkuntza-eskubide urraketak gertatzen direla salatzen dute herritarrek.

Nabarmendu behar da, herritarrak kasu askotan ez direla ausartzen beraien hizkuntza-eskubideekiko errespetua eskatzen, alboko kalte ondorioa izango dutelakoan. Hartara, herritarren eskubideak egikaritzeari begira oztopo gehien dituen sektorea dela esan dezakegu.

599-2019

Bilboko udaltzain-bikote batek kalean gelditu ninduen. Gaztelania hutsez NA eskatu zidan. Nik euskaraz hitz egin nion hasiera hasieratik eta berak gaztelaniaz jarraitu zuen. Nik euskaraz hitz egi nahi nuela esan nion eta berak erantzun zidan ez nuela eskubiderik, ikasten ari zela esan didala. Nik esan nion euskaraz komunikatzeko eskubidea nuela eta berak gaztelaniaz jarraitu zuen. Isuna jarri zidan, hau ere gaztelania hutsean...

617-2019

Emazteari kartera lapurtu diotela eta, Getxoko ertzain etxera gerturatu gara. Euskaraz eman dizkiogu azalpenak artatu gaituen emakume ertzainari eta berak era zakarrean erantzun digu ez dakiela euskaraz. Momentu horretan bertan aseguru etxetik deitu naute eta hauek ere ez zekitenez euskaraz, gaztelaniaz hitz egin behar izan dut telefonoz. Deia amaituta ertzainak "veo que usted habla muy bien en castellano esan dit" eta momentu oro salaketa gaztelaniaz jartzera behartu gaituzte. Itxarongelara pasa gaituzte eta hortik entzun dugu nola beste ertzain bati esaten zion, "ahí tienes a un eusquérico".

"Herritarrak kasu askotan ez dira ausartzen beraien hizkuntza-eskubideekiko errespetua eskatzen"



87-2019

Foruzaingoaren twitteren kontu ofizialaren euskararen erabilera hutsaren hurrengoa da. Nafarroako Gobernuaren beste kontu batzuen birtxiokatutakoak kontuan eduki gabe (hauek ere gutxi), kontu horrek euskaraz txiokatutako tuit bat aurkitzeko urtarrilaren 23ra iritsi naiz. Gainera, twitean jartzen duten web orria soilik erdaraz dago eta ez dago aukerarik euskaratzeko. Hurrengo twita euskaraz urtarrilaren 22an izan zen, eta aurrekoan azaldu dudan tuit berbera soilik erdaraz dagoen web orri berberarekin. Hau da, orain arte 2019 osoan soilik bi twit euskaraz eta beste kontu batzuen bertxio batzuk.

Ahozko arretaz gaindi, idatzizkoan ere kexak jaso ditugu, dela isun-inprimakiak gaztelaniaz jasotzeagatik, dela herritarrei zuzendutako abisu, errotulu eta oharrak gaztelaniaz baino ez zabaltzeagatik, dela sare sozialetako mezuak gaztelaniaz besterik ez egoteagatik....

Aipatzeko modukoa da aurreko urtean Bilboko jaietan euskaraz aritzeko eskatu ondoren, udalaren partetik erantzun gogorra jaso eta bi isun jaso zituen herritarraren kasua epaitegietara heldu dela. Segurtasun-kidegoak beharrezko hizkuntza-gaitasuna ez edukitzeak herritarren hizkuntza-eskubideak alde batera uztea ekartzen du.

Eskubidea baliatu duten herritarrek desobedientzia leporatzeko arriskua eta Mozal delako legeak izan ditzakeen ondorioek babesgabe uzten dute herritarra.

Bide-segurtasunari dagokionean, errepideetako seinaleak, obra zein bestelakoen ohar, kartelak eta enparauak gaztelania hutsean ikusten dira oraindik.

Horrekin batera, herritarrek jasotzen dituzten isun zein gutun eta jakinarazpenak gaztelaniaz izaten dira nahi baino gehiagotan.

Espainiako Polizia eta Defentsa Ministerioko arretak, paisaia linguistikoak zein inprimakiek gaztelaniaz jarraitzen dute, normaltasun osoz.

2019an ere arazoak izan dira NANa tramitatzeko beharrezkoa den jaiotza-agiria euskaraz izateagatik. Madrilera bidali behar direla eta, herritarrarengan jartzen dute gaztelaniara itzultzeko zama.

312-2019

Nire alabarentzat bere lehen NANa egitera joan naiz Iruñean Pascual Madoz kalean dagoen bulegora. Errolda agiria aurkeztean euskara hutsean zegoela eta atzera bota didate. Elebiduna edo gaztelaniazkoa aurkeztu behar dela esanez. Hala da? Eta BESTETIK, Nafarroako NAN elebiduna eskatzerik badago?

Hortaz, segurtasun-kidegoekin herritarrek ez dute bermatua zerbitzua euskaraz jasotzea, gaztelania da lehentasunezko hizkuntza, berme juridiko osoa eta babesa eskaintzen duen bakarra.

Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko agente elebidunen eta elebakarren arteko desoreka leundu beharra dago. Izan ere, "Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeko bigarren planean" adierazten den bezala, ertzainen %46k (3.458 ertzainek) dute hizkuntza-gaitasuna egiaztatuta eta horietatik 486k duten Europako Markoaren C1 maila. Beste guztiek maila apalagoa dute eta horrek ere baldintzatzen du zerbitzuak euskaraz eman (eta jaso) ahal izatea.

Kontuan izan behar da Ertzaintzaren erakundeak berak 50 urtetik aurrerako agenteak euskara ikastetik salbuesten dituela, eta egun, 4.000 inguruk dutela 50 urte baino gehiago, batez besteko adina 48,04koa baita. Salbuespen hori oztopo larria da herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzerako orduan. Horren adierazgarri dugu Ertzain-etxe guztietako (salbuespenik gabe) hizkuntza-indizea, dagokion herriko indizea baino baxuagoa izatea.

Nafarroako Foru Erkidegoan, berriz, Barneko eta Justiziako Departamentuan, Barne Saileko %0,1k du euskararen nahitaezko ezagutza.

Behatokian jasotako gertaeren arabera, oraindik ehuneko eznahikoak dira herritarren eskubideak bermatzeko. Horrek segurtasun-kidegoetako lanpostuak hornitzeko deialdietan euskara jakiteari orain arte ez bezalako trataera ematea eskatzen du, euskara jakitea ezinbesteko baldintza bihurtuz. Lanerako hizkuntza ere bilakatu beharko litzateke, errekurtso informatiko zein bestelako euskarrien euskalduntzean sakonduz.

Ertzain-etxeetako hizkuntza-eskakizunak herri horietako indize linguistikoekin alderatuz gero, ez du euskarazko zerbitzua bermatzen.

Udaltzaingoari dagokionean, EAEn udalerri batzuetan deigarria da 2019an atera ziren plaza kopuru handi batek derrigortasun tasa gabeko Hizkuntza Eskakizuna dutela. Adibidez, Gasteizen 2019an atera ziren plazen %62ak ez du derrigortasun datarik edo Barakaldo bezalako udaletako urte bereko plazetan %95ak. Bestalde, uda garaia zein bestelako oporraldi, baja etabarren ordezkapenak egiterako orduan lan-poltsa batzuk agortzean, hizkuntza-eskakizunik ez duten edo eskakizun maila apalagoa duten lan-poltsak erabiltzen direla detektatu izan dugu. Ondorioz, agenteek ez dute lanpostuari dagokion eskakizuna betetzen, eta horrek eragin zuzena du herritarrekiko arretaren kalitatean.

Lan-poltsen kudeaketan hizkuntza-eskakizunen bermatzeak beste eskakizunek duten zorroztasun-maila berdina izan beharko lukete eta, nola ez, segurtasun- kidegoetako lanpostuak hornitzeko deialdi guztietan, euskara jakitea ezinbesteko baldintza izan beharko litzateke.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

RESOLUCIÓN DEL DIRECTOR DE COORDINACIÓN DE SEGURIDAD, POR LA QUE SE ACUERDA INCOAR UN EXPEDIENTE SANCIONADOR A [redacted] POR INFRACCIÓN DE LA LEY ORGÁNICA 4/2015, DE 30 DE MARZO, DE PROTECCIÓN DE LA SEGURIDAD CIUDADANA (LOPSC)

EXP.: [redacted]

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.- Se ha recibido informe [redacted] elaborado por agentes de la Ertzain-etxea de Donostia-San Sebastián, en el mismo se señala lo siguiente:

Sobre [redacted] horas del d[redacted] de mayo de 2018, agentes de la Ertzaintza se encontraban en la calle [redacted] próxima con la plaza de Gipuzkoa de esa localidad cuando intentando identificar a la resp[redacted] de una concentración no notificada. Al mismo tiempo, otra persona, que resultó ser [redacted] se interponía entre los agentes y la responsable y no dejaba a éstos proseguir con su labor identificativa intentando evitar que la responsable mostrara su DNI a la vez que haciendo caso omiso a los agentes gritaba y se negaba a retirarse del lugar.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.- El Director de Coordinación de Seguridad es competente para iniciar y tramitar el presente expediente sancionador, y el Director de la Ertzaintza es competente para dictar la resolución que ponga fin al procedimiento, siempre que el mismo finalice con la imposición de una sanción prevista en el fundamento de derecho cuarto.[1]

Segundo.- Los hechos relatados en los antecedentes de hecho de la presente resolución pueden ser constitutivos de una infracción grave, prevista en el artículo 36.4 de la LOPSC, que califica como tal: *"Los actos de obstrucción que pretendan impedir a cualquier autoridad, empleado público o corporación oficial el ejercicio legítimo de sus funciones, el cumplimiento o la ejecución de acuerdos o resoluciones administrativas o judiciales, siempre que se produzcan al margen de los procedimientos legalmente establecidos y no sean constitutivos de delito"*. En este caso la infracción consiste en realizar actos de obstrucción para impedir el cumplimiento o la ejecución de una resolución judicial.

Tercero.- De la citada infracción resulta presunta responsable en concepto de autora la persona citada en el encabezamiento.

Cuarto.- *A la vista del artículo 39 de la LOPSC*, que establece para las infracciones graves una sanción comprendida entre un mínimo de 601.- euros y un máximo de 30.000.- euros, y de acuerdo con los criterios determinados en el apartado 2 del artículo 33 de la misma Ley, en el caso de quedar acreditada la comisión por la persona inculpada de la referida infracción, le será impuesta **una sanción de multa de 602.- euros.**

[1] Artículo 5.3 de la Ley Orgánica 4/2015, de 30 de marzo, de Protección de la Seguridad Ciudadana (LOPSC); Disposición Adicional Tercera de la Ley 15/2012, de 28 de junio de Ordenación del Sistema de Seguridad Pública de Euskadi; artículos 18 y 19 del Decreto 83/2017, de 11 de abril, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Seguridad.

"Segurtasun kidegoarekin herritarrek ez dute bermatua zerbitzua euskaraz jasotzea"

03 Justizia

Justizia

Herritarrek auzitegi ezberdinetan egin beharreko hainbat tramite eta prozeduratan hizkuntza-eskubideak urratu zaizkiela salatu izan dute. Agiri, zitazio, ziurtagiri zein bestelako oharrek gaztelania hutsez jarraitzen dute. Justiziako lanpostuetako langileek euskara ez jakiteak erabat baldintzatzen du bai barne-funtzionamendua, bai eta justizia alorreko egunerokotasunean gaztelania besterik ez erabiltzea, eta, nola ez, herritarrekiko zerbitzua, ahozkoa zein idatzizkoa hizkuntza horretan izatea.

“Justiziako lanpostuetako langileek euskera ez jakiteak herritarrekiko zerbitzua baldintzatzen du”

123-2019

Joan den astean, martxoaren 20an, asteazkena, bezero batekin Getxoko Osagile Forensearenga joan nintzen. Bezeroa hartzerako “datu pertsonalak” edota “kontsentimendurako” orria sinatzeko eman zioten. Bezeroa hartzerako “datu pertsonalak” edota “kontsendimentutarako” orria sinatzeko eman zioten. Aipatu orria gaztelania hutsez zegoen. Euskaraz eskatu genuen, eta ez zegoela esan ziguten. Hortaz, bi aukera genituen, erdarazkoa sinatzea, ala hurrengo baten itzultzea. Esan beharrik ez dago, bigarren aukera horrek badakarrela berez, bezeroak, edo nik neronek neure lan-denboraren ordaina asumitzea. Lehenengoa hautatu genuen, eta horrela nire bezeroa derrigortua izan zen gazteleraz aurkeztutakoa sinatzera.

40-2019

Jakinarazpena jaso dut Nafarroako Justizia Dekanatotik. Guzti guztia gaztelania hutsean.


ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA
SERVICIO COMÚN DE ACTOS DE COMUNICACIÓN Y EJECUCIÓN
PAMPLONA

MESA N.º 9

848 42 41 72
848 42 41 74

Habiéndose personado el/la
en su domicilio a las horas
del día de hoy y no habiendo sido hallado en el mismo,
se le cita por medio del presente para que comparezca
el día de de
de 08:00 a 15:00 horas en las dependencias del Servicio
Común de Actos de Comunicación y Ejecución, sito en el
Palacio de Justicia de Pamplona, c./ San Roque, N.º 4, planta
baja, con el fin de practicar una diligencia judicial de su interés.

NO SE FACILITARÁ INFORMACIÓN POR TELÉFONO.
Si no fuera usted la persona interesada, por favor,
llame al teléfono indicado. Gracias.

En Pamplona, a de de 2019

D./Dña.

Servicio Común de Actos de Comunicación y Ejecución

ESPAÑA

JUZGADO DECANO
ICIO COMÚN DE ACTOS DE
UNICACIÓN Y EJECUCIÓN
PAMPLONA

Justizia administrazioko langileek euskaraz ez jakiteak herritarren hizkuntza-eskubideak sistematikoki urratzea dakar. Eta beti diogun bezala, hizkuntza-eskubideez gaindi, oinarrizko beste eskubide batzuk ere urratzen dira, besteak beste, defentsa-eskubidea edota babes judizial eragingarrirakoa.

657-2019

Zestoako bake epaitegiko Laguntzailea bajan da eta gaur ordezkoa bidali dute. Ordezko horrek ez daki euskara. Dakizunez 86/97 Dekretuak zehazten duenez, Zestoako Udalari %88,49 derrigortasun indizea dagokio. Hots, lanpostu guztiek derrigorrezko dute hizkuntza-eskakizuna. Baita jendaurreko lan-postuak ere, izan ere, herritar gehien gehienak euskaraz egitern dituzte tramiteak eta kontsultak.Hori dela eta, eta Zestoako herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatuak izan daitezen ziurtatzeko, bitarteko laguntzailearen baja beteko duen ordezko langilea euskalduna izan dadila eskatzen dizuegu.

“Europako gutunean Espainiako Estatuak hartutako konpromisoek bete gabe jarraitzen dute”

Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunean Espainiako Estatuak hartutako konpromisoek bete gabe jarraitzen dute. Are gehiago, marko legala aldatu ezean, hego Euskal Herriko agintari judizial, penal, zibil eta administratiboek ezin izango dituzte prozedurak euskaraz bideratu, alde batek eskatuz gero.

Botere Judizialaren Lege Nagusiaren 231 artikuluak Gutunaren 9. artikulua bete ahal izatea galgatzen du. Artikulu horren arabera, hizkuntza koofizialen erabilera baimentzen da alderen batek objekziorik jartzen ez badu. Printzipio horretan hizkuntza koofizialen erabilera debekatu ez arren, itzulpenen beharra dakar, bai eta prozedurak luzatzea ere. Egoera hori muga da eremu judizialean hizkuntzen koofizialtasuna aplikatzeko.

Gutunaren 9. artikuluak aplikatzeko eta eremu judizialeko langileek hizkuntza koofizialetan lan egiteko hizkuntza horien ezagutza berma dezatela eskatu arren, egoera orokorra ez da aldatu.

Ez dago bermatuta prozedura kriminal, zibil edo administratiboa euskaraz bideratuko denik alde batek hala eskatuz gero. Hortaz, justizian hizkuntza-eskubideak bermatze bidean, beharrezkoak da, berandu baino lehen, dagozkien aldaketak egitea.

04 Hezkuntza

Hezkuntza

2019an ere hezkuntzako maila guztietan izan dira urraketak.

Nafarroako Foru Erkidegoan ez dago haurrentzat bermaturik euskarazko murgiltze eredua. Haur hezkuntzan, hainbat gurasok beraien haurrak eredu horretan matrikulatu nahi izan dituzte, baina zentro batzuek ez dute eskaintza hori egiten eta beste askotan plaza-kopurua ez da nahikoa. 0-3 urtekoen eskaintzan zein 3 urtetik gorakoen eskaintzan gertatzen dira egoera horiek.

451-2019

Antsoaingo Udal haur eskolan 2019-2020 ikasturtea hasi da. Gure alaba ezin izan dugu bertan matrikulatu. Eredu euskaldunik eskaini gabe jarraitzen baitu.

> **"Zentro batzuek ez dute euskarazko eskaintzarik eta beste askotan plaza kopurua ez da nahikoa"**

Derrigorrezko lehen hezkuntzan, legeak ezarritako eremu ez-euskaldunean gutxieneko ratio bat lortu behar da euskarazko lerroa abiatzeko, eta horrek askotan ezinezko bihurtzen du hala nahi dutenei euskarazko eredua bermatzea.

Bestalde, eta helduen hezkuntzari dagokionez, legeak ezarritako eremu ez euskaldunean, Nafarroako Gobernuak eskaintzen dituen ikastaroetan ez zegoen euskara ikasteko aukerarik. Herritarrek martxan jarritako sinadura bilketaren ondorioz, Cascanten abian dira ikastaroak. Castejongo udalerrian sinadura-bilketa egin zuten, baina oraindik ez dituzte martxan jarri. Nafarroako Gobernuak ez du Helduen Hezkuntza Zentroetan euskara programaturik, ez eta hizkuntza integratzeko inongo plangintzarik ere, herritarren sinadura-bilketak egin du posible aukera hori zabaltzea.

549-2019

Nafarroako Gobernuak Helduen Hezkuntzaren baitan doan eskaintzen dituen ikastaroetan euskara ikasteko aukera eskatzeko sinadurak aurkeztu genituen Castejongo Udalean. Sinadurak Tuterako EPAn aurkeztu eta eskaera onartu zutela jakinarazi zitzaion Tuteratik Castejongo Udalari. Hori jakinda, Castejongo Udalak eskaintza egin zuen herrian eta 48 pertsonak eman zuten izena euskara ikasteko. Pertsona hauek asteak daramatzate klaseak hasteko zain eta ez dakigu zergatik ez diren oraindik abiatu. Prozedura bera erabilita Cascante herrian martxan dira euskara eskolak. Castejonen zergatik ez diren hasi jakin nahi dugu.

Legeak ezarritako eremu euskalduneko lanbide heziketako zentroetan irakasle eta ikasle euskaldunak egon arren, eskaintza ia osorik gaztelaniaz egiten da, irakasgaien gehiengoa hizkuntza honetan eskaintzen delarik.

Goi mailako ikasketetan magisteritza da Nafarroako Unibertsitate Publikoan osorik euskaraz eskaintzen duen ikasketa bakarra. 2019an ere egoerak berdin jarraitu du. Ikasketak euskaraz egin nahiko lituzketen ikasleek gaztelaniaz ikasi behar izaten dituzte kreditu gehienak, edo Euskal Herriko Unibertsitatera jo.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, 2019an indarrean jarraitu du ikasleak hizkuntzaren arabera sailkatzeko sistema berberak.

Hezkuntza lege berri bat sortzeko prozesua 2020ko lehen hiruhilekoan onartuko zutela iragarri zuen Eusko Jaurlaritzak, baina lege proiektua oraindik ez da ezagutzen. Hausnarketarako dokumentuan eztabaidarako bost ardatzen artean hizkuntzarena ere bazegoen. Hainbat azterketak agerian utzi duten moduan, ereduen sistemak ez du bermatzen derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan euskararen ezagutza egokia, eta ez du ikasle guztiek gaitasun berbera izateko eskubidea bermatzen.

2019an kexa ezberdinak jaso genituen Behatokian D ereduko Euskal Autonomia Erkidegoko zentroetan ordezkapenak egiteko euskara ez dakiten irakasleak kontratatzeagatik. Horrekin batera kexak izan dira kanpo formazioko zenbait jarduera gaztelania hutsean izateagatik. Euskara ez dakiten irakasle edo formatzaileak kontratatzeak erabat baldintzatzen du zentroko antolakuntza eta barne-funtzionamendua, zenbaitetan zentroan euskaraz ez dakien langile bakar bat izatean, formakuntza zein bestelako jarduerak gaztelaniaz izatera pasatu dira.

383-2019

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak Irungo Plaiaundi Ikastetxerako euskaraz ez dakiten ordezko bi langile kontratatu ditu Hizkuntza Departamenturako. Honek Departamentuaren hizkuntza jarduna erabat baldintzatuko du. Hezkuntza Sailean Langileen Kudeaketarako Zuzendariari horrelakorik berriro gerta ez dadin neurriak hartzea eta erabaki oker hori baliogabetzea eskatu diot.

Nafarroan, 2019an Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko Musika eta Arte Eszenikoetako katedradunen espezialitate ezberdinetako kidegoan sartzeko deialdian euskara ez zen beharrezkoa eta, baloratzekotan, hizkuntza eskolako gainerako edozein titulu bezala, 0,5 puntuko merezimendua baino ez zuen izan.

Arlo akademikotik kanpo, hezkuntzaren eremuko bestelako jardueretan ere urraketak izaten dira. Hona zenbait adibide: EHUk bidaltzen dituen mezu elektroniko zein fakturak gaztelania hutsean egotea eta bestelako atal administratiboetako ataletan arreta euskaraz bermatu ezin ahal izatea; Eusko Jaurlaritzako liburutegi digitaleko maileguetan euskarazko eskaintza eza; Hezkuntza Departamentuko zenbait telefonotan arreta euskaraz ez eskaintzea; NUPeko langileen atarian informazio eguneratua gaztelania hutsean egotea...

“Euskara ez dakiten irakasle edo formatzaileak kontratatzeak erabat baldintzatzen du zentroko barne-funtzionamendua”

349-2019

Goizeko 10:30 aldera Arabako Hezkuntza departamentura deitu dut eta gaztelaniaz egin behar izan dut euskaraz ez zidatelako ulertzen.

Nafarroan, hizkuntza eskola ofizialean, zenbait kasutan sarrerako arreta euskaraz bermatzeko ezintasuna dagoela jakinarazi digute zenbait herritarrek eta bidaltzen zaien informazio eta mezu oro gaztelania hutsean daudela.

Ipar Euskal Herrian, 2019an ere ez da izan Baxoa euskaraz egiteko aukerarik, nahiz eta ikasketak euskaraz egin. Etxepare Lizeoko zuzendari Iban Thicoipek salatu zuen Seaskakoak ez diren beste ikastetxeetan jarduten duten haurrek bakarrik Geografia-Historia egin zezaketela euskaraz, Matematikako azterketa euskaraz egiteko aukera ikastolako ikasleen ematen zietelako soilik.

Bestalde, gogoratu behar dugu Brebetan ere ikasle euskaldunek bereizkeria pairatzen dutela.

Azkenik, larria ere bada, hezkuntzaren barnean haur eta gazteei bestelako heziketa zuzena ematen zaien alorretan oraindik zerbitzua euskaraz emateko zailtasunak izatea. Hala nola, eskola jangeletako zerbitzuan gertatzen diren urraketak. Eusko Jaurlaritzak kontratatzen dituen zenbait enpresak ez dute hizkuntza-eskakizuna nahitaezkotzat hartzen eta haien langileei ikastaroak eman arren, askotan ez da nahikoa haur eta gaztetxoei jangelan euskarazko zerbitzu egokia eskaintzeko.

286-2019

Nahiz eta orain dela hamarkada bat baino gehiago euskaraz irakasten duten eskola bat izan, ez dugu lortzen jantokiko monitore guztiak euskaldunak izatea. Egoera larria da. Urte hauetan zehar, honi buruzko neurriak hartzea dagokien estamentuen pasibotasunaren aurrean, arazo honi premiazko konponbidea ematea exijitzen dugu: hau da, jangelako monitore guztiak gai izan daitezela euskara hutsean aritzeko ikasleriarekin, horrela ikasleria eta eskolako langileriaren arteko komunikazio hizkuntzaren eredua bete dadin.

Hezkuntzan, beraz, alor akademikoan ikasleek euskara-gaitasun egokia erdiesteko ereduaren beharrak, haur-eskola eta unibertsitate mailako hezkuntzan euskarazko eskaintza bermatzeak eta hezkuntza sail osoan zerbitzua, arreta, zein barne-harremanak euskaraz bermatzeak erronka izaten jarraitzen dute 2019an ere.



Es decir, si quien tiene capacidad de obrar ante las Administraciones Públicas tiene, en general, derecho al acceso a la información pública, con mayor razón es titular de este derecho quien es interesada en el procedimiento.

Finalmente, la Ley 19/2013 citada en este último artículo define la información pública como *"Los contenidos o documentos, cualquiera que sea su formato o soporte, que obren en poder de alguno de los sujetos incluidos en el ámbito de aplicación de este título y que hayan sido elaborados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones"* en su artículo 13. Los sujetos incluidos a que hace referencia son, entre otros, las Universidades públicas, mencionadas expresamente en el artículo 2.1.d) de la Ley.

Así pues, se observa que existe una **obligación legal** de atender la solicitud de información adjunta al oficio anterior, de modo que la Comisión Evaluadora debe remitir los documentos requeridos al Servicio de PDI, independientemente de si se interpone además un recurso o no.

Sin otro particular, un saludo.

En Leioa, a 27 de septiembre de 2019

LA RECTORA
P. D., Inmaculada Cruz-Lagoitia Marina

Irakasle-ikertzaileen arloko erektoreordea / Vicerrectora de Personal Docente e Investigador



05 Administrazio jarduera orokorrak

Administrazio jarduera orokorrak

Frantziako zein Espainiako Estatuetako administrazioetan hizkuntza-eskubideak urratzen dira hainbat departamentu zein zerbitzutan, hala nola: posta zerbitzua, gizarte-segurantzaren zerbitzuak, garraiobideak, ogasuna zein erregistro zibileko bulegoetan.

10-2019

Iruñeko Correosen bulego nagusian, txanda hartzeko gailuak euskara hautatzeko aukera ematen du baina aurrez-aurre ez naute euskaraz artatu. Bestalde, ematen didaten agiria ele bietan dago baina euskarazko itzulpena lotsagarria da.

Oraindik orain, web-guneetako informazioa, inprimakiak, txanda-tiketak, edozein motatako jakinarazpen, kartel zein herritarrei bidaltzen zaizkien gutunak gaztelaniaz soilik eskaintzen dira eta, nahiz eta herritarrak hala eskatu, kasu askotan ez dago euskarazko aukerarik.

326-2019

Irungo komisaldegian, nortasun agiria berritzeko asmoz euskaraz artatua izateko eskaera egin, eta ez dute onartzen. Informatikako kontuak direla esaten dute eta ez dago euskara erabiltzen duen arreta zerbitzurik.

2019an Behatokian hainbat kexa jaso dugu hauteskundeetan, hautesle-erroldaren bulego ezberdinetatik herritarrei helarazitako jakinarazpen edo inprimakiak gaztelania hutsean edo euskara ez zuzenean idatzita zeudela esanez.

565-2019

Aramaion herritar askok egin dute propaganda ez jasotzeko eskera eta guztiek honako erantzuna jaso dute. Tamalez, euskarazko testua ez da apenas ulertzen!

"Nahiz eta herritarrek hala eskatu, kasu askotan ez dago euskarazko aukerarik"

Garraiobideetako paisaia linguistikoa, jakinarazpenak zein arreta zerbitzuan ere etengabeko urraketekin jarraitzen dutela adierazten digute herritarrek.

452-2019

Donostian Renfek duen geltoki nagusian gertatu zen. Informazio eske joan nintzaion bertako langileari, euskaraz. Erdaraz egin nezan eskatu zidan, eta horrelaxe egin nuen. Era honetako enpresa publikoetan euskaraz hitz egiteko gai diren pertsonak egon behar dute jendearen arretan.

Herritarrei ematen zaien arretari lotzen zaio zuzenean langileen hizkuntza-gaitasun eza, eta horrek ondorio zuzenak dakartza.

2019an Espainiako Gobernuko Administrazio Orokorreko 1026 plaza esleitu ziren Euskal Autonomi Erkidegoan, azken urteetan egin den deialdi handiena izanik ere, beste behin ez da euskara eskakizun orokor gisa kontuan hartu. Hortaz, EAEn ere administrazio orokorrari lotutako zerbitzuetan hutsune larriak daude euskarazko arreta, garraio, bestelako zerbitzu zein paisaia linguistikoan.

Nafarroako Gobernuak 2019an administrari laguntzailerako 136 plaza atera zituen. Deialdia, Administrazio zentrala, Osasunbidea (bai eta barne-promoziorako ere) eta Nafarroako Osasun Institutu Publikoko aldi-baterako lan-poltsak eratzeko bideratu zen. 136 plaza horietatik 20k bakarrik izan zuten euskara eskakizun gisa ezarrita, 20 horietatik batzuek B2 mailako eskakizuna besterik ez zuten; zegokien zerbitzua emateko ez-nahikoa.

Nafarroako eremu batean euskara ofiziala izan arren, administrazio orokorreko hizkuntza baliodunak gaztelania izaten jarraitzen du. Gainerako eremuetan kasu gehienetan euskara ez da ez eta kontuan hartzen ere administrazioko zerbitzu orokorretan. Gainera, 2019an Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak kaleratutako epaiaren ondotik, eremu batzuetako zerbitzuetako lan-postuetan euskarazko hizkuntza eskakizuna ezarri gabe eta kasu askotan beste hizkuntza batzuek baino gutxiago baloratuta egongo dela aurreikusten da. Kontuan hartu behar da epaiaren arabera ezinezkoa izango dela lanpostuetan euskararen ezagutzaren balorazioa derrigortzea.

Hortaz, Hego Euskal Herriko administrazio horietan, balioa eta babesa gaztelaniari besterik ez zaio ematen.

Ipar Euskal Herrian euskarari izaera ofizialik eskaintzen ez zaion heinean, administrazio orokorrean harremanak euskaraz izatea ezinezko bilakatzen da.

Ondorioz, nabarmentzekoa herriko etxe batzuetan euskara harremanetarako erabili arren, administrazio zentralaren aldetik Frantsesezko agiri, komunikazio zein bestelako inprimakiek soilik dute baliozkotasuna. Ondorioz, aitortza ezak traba nagusia izaten jarraitzen du edozein eginbide euskaraz egin ahal izateko.

TGSS informa: ya puede acceder a la Comunicacion anual de vida laboral en la Sede Electronica de la Seguridad Social http://run.gob.es/osdnci

Ciudadano Detalle

... de componente. ${title}. ${loading}. Acciones. Informes y Certificados

sede.seg-social.gob.es

06 Udalak eta Herriko Etxeak

Udalak eta Herriko Etxeak

Herritarrek 2019an adierazi zigutenaren arabera, udalen jakinarazpen, isun, baliabide elektroniko, seinale eta kartel zein oharretan izan ziren urraketak. Zerbitzu zuzenez gaindi, azpikontratatutako zerbitzuetan ere izan ziren.

Herri eta hiri ezberdinetako paisaian euskara txertatua egoteak berebiziko garrantzia du, euskararen presentzia areagotzeko eta ikusgarri egiteko tresna egokia direlako.

656-2019

Bilboko Intermodaleko kafetegi eta dendan inork ez du euskaraz hitz egiten. Bilboko Udalak nori esleitu dizkio Termibus barri honen zerbitzuak? Kafesne bat mesedez. "No hablo euskera, en castellano por favor"

Udalek antolatzen dituzten ekimen, jarduera zein ospakizunetan ere hizkuntza-eskubideen urraketak izan dira. Kasu batzuetan jarduerak euskaraz iragartzen diren arren, praktikan, gaztelania hutsean izaten dira.

386-2019

Zabalganako gizarte etxean, orokorrean, oso jarduera gutxi dago euskaraz. Batzuk elebidun jarri dituzte, baina horrek ez du ezertarako balio: uztailean "Condición física/ Sasoia" ikastaroa egin dut, teorian elebiduna zena, baina oso-osorik gaztelaniaz eman dena.

526-2019

Hondarribiko Kasino Zaharra jubilatuen elkartean antolatutako 3 gimnasia ikastaroak erdaraz dira, nahiz eta erabiltzaile gehienak euskaldunak garen. Nahi nuke euskaraz ere egitea.

Lurralde Udal Arloa
Erandio Udala AYUNTAMIENTO
Area Municipal de Territorio
ERANDIO ELIZATEKO UDAL
2019 URT. ENE.
ZK/RE
IRTEERA ERREGISTROA
Registro General SALIDA

FECHA: /01/2019

EXPEDIENTE:

DESTINATARIOS:

48950 -ERANDIO.-

1.- Nombramiento de los técnicos contratados para la dirección de obra, la ejecución material y la coordinación de la Seguridad y Salud
2.- Plan de Seguridad y Salud
3.- Plan de Gestión de Residuos
4.- Aprobación de ambos planes – el de seguridad e Higiene y el de Gestión de Residuos.

Dado que no se ha presentado esta documentación, estas obras no se pueden iniciar y el incumplimiento puede suponer una infracción conforme al artículo 255 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Lo que se le comunica para su conocimiento y a los efectos oportunos

En la Anteiglesia de Erandio,

Lurralde Eremu Arloko Ordezkaria
Delegado del Área Territorial de Territorio
D. Iñigo Ruiz de Azua Arróspide


Espedientea / Expediente

Jasotzailea/Destinatario

48486 ARRANKUDIAGA

Egunak/Fecha:
1-2-2019
Gaia/Asunto:
NOTIFICACIÓN DE INCOACIÓN (S7)
(00.541/18)

El Concejal Delegado del Área de Seguridad Ciudadana, haciendo uso de las atribuciones conferidas al mismo por delegación de la Alcaldía-Presidencia, obrigada por Tuxolución de fecha 13 de junio de 2015, y de la Junta de Gobierno Local, por Acuerdo de 15 de junio de 2015, delegación que se mantiene en vigor en el día de la fecha, y de conformidad con lo establecido en el artículo 18.2 del de la Ley 7/85 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, modificada por la Ley 27/2013 de 27 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local, en materia de régimen local, Ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, en especial su artículo 9, así como los artículos de aplicación del Reglamento Orgánico del Gobierno y de la Administración del Ayuntamiento y demás normas de carácter general o sectorial, a la vista del informe emitido por el Area, HA RESUELTO:

PRIMERO- Incoar expediente sancionador a [redacted] con [redacted], en calidad de autor de la infracción que se imputa, de acuerdo con el informe que motiva la presente resolución y del cual se le da traslado.

El informe que se traslada tiene el siguiente tenor literal:
"El Área de Seguridad Ciudadana ha detectado en el ejercicio de sus competencias la realización de las siguientes actuaciones que pueden ser constitutivas de infracción administrativa:

Hechos imputados:
[redacted]

Los hechos que se imputan figuran detallados en el acta/denuncia de referencia.

Lugar: *c/ Nerbioi nº 1. Bilbao.*
Fecha y hora Comisión: *1-12-2018, a las 02:40 horas.*
Responsable: [redacted] *como autor de los hechos.*

Documentación soporte de la imputación:
La documentación en virtud de la que se incoa el presente expediente está constituida por la denuncia nº 80.641/18, extendida por los agentes de la Policía Municipal de este Ayuntamiento, números 1.076 y 1.127, en el que se da cuenta pormenorizada de la infracción imputada.

El expediente administrativo se halla a disposición de la persona imputada para su examen y



Udalerri batzuek euskara ordenantza propioa izan arren, urraketen gaineko ikuskapen zein kontrolik ez eramateak ordenantzaren ez betetze kasuak ohiko izatea dakar.

Testuinguru horretan, 2019an hainbat lan-deialdi egin dira, hutsik dauden lanpostuak bete edo zerbitzuetan sortzen diren beharrei erantzuteko lan-poltsak osatzeko. Lanpostu publikoen hornikuntzan, euskara galdegin gabe edo behar bezala puntuatu gabe jokatu dute hainbat udalek. Bilboko Udalean teknikari (TAG) lanposturako ez da beharrezkoa euskara jakitea, Donostiako etxegintza erakunde publikoan euskara eskakizun bezala kontuan hartu ez izana erreklamatu behar izan da edota udaltzaingoen lan-poltsetan hizkuntza-eskakizuna betetzen duten pertsonarik ez dutenean, euskaraz ez dakiten pertsonak kontratatzea adibidez. Nafarroako udal askotan ere lanpostu batzuei ez zaie inolako hizkuntza-eskakizunik ezartzen eta, baloratzen den kasuetan, ez da herritarrekiko zerbitzuan bermatzeari begirako beharrezko maila eskatzen.

Lanpostu publikoak diren heinean, betebeharrak aurrera eraman eta zerbitzu egoki bat eskaintze bidera ezarritako eskakizunetan ezin da salbuespenik egin. Beste eskakizun batzuk beharrezkoak diren bezala, euskara jakitea ere beharrezkoa izan beharko litzateke kasu guztietan. Hizkuntza-eskubideak uneoro bermatu beharrekoak dira.

547-2019

Orgiko basoko parkinean langile bat dago, parkinean aparkatzeagatik kobratzeko eta informazioa emateko. "Egun on" esateaz gain, ez zen gai gehiago ez ulertzeko ezta solas egiteko ere. Non eta Ultzaman, publikoari arreta eman eta euskaraz ez dakien langile bat jartzea ez zait bidezkoa iruditzen.

"Urraketen gaineko ikuskapen zein kontrolik ez eramateak, ordenantzen ez betetze kasuak ohiko izatea dakar"

Ipar Euskal Herrian legezko aitortza eta ondorioz ofizialtasunik eduki ez arren, herriko etxeek badute eragitea zeinek bere eremuan, eskaintzen duten zerbitzu zein barne-funtzionamenduan hizkuntza-politika garatzeko pausu eta neurriak hartzeari begira. 2019an aurkeztutako Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa hurrengo urtetik aurrera herriko etxeetako jardunean neurriak hartzeko tresna egokia izango da.

2019an Uztaritzeko herriko etxean, beraien hautetsi karguetatik dimisioa aurkezteko dokumentua euskara hutsean helarazteagatik ez zitzaien dimisioa onartu. Honek, argi uzten du Frantziar Estatuko ofizialtasun ezaren medio, legedi eta arau ezberdinek, ez dietela hizkuntza-eskubideekiko inongo aitortzarik egiten euskaraz idatzitako dokumentuei eta beraz edozein eginbide administratibo zein judizialek balioa izateko Frantsesez idatziak helarazi behar direla nahitaez.

“Ipar Euskal Herrian legezko aitortza eta ofizialtasunik eduki ez arren, herriko etxeek badute eragitea”



07 Lan mundua

Lan mundua

Lan munduan edozein jarduera zein sektoretan, barne maila zein kanpora begirakoetan, gaztelania eta frantsesa dira nagusi. Erakunde publikoetako lan-jardunean ere zailtasunak ematen dira barne-mailan euskaraz lan egin ahal izateko, dela administrazio publikoko langile batzuen gaitasun faltagatik, dela lan-prozedura zein baliabide eta lan-tresnak erdaraz izateagatik.

Enpresa pribatu askotan langileen euskara gaitasuna bigarren mailan uzten da, bai kontratazioetako eskakizunei dagokienean, baina bai eta formazio-planak diseinatzerakoan ere. Enpresetako erabakitzegune zein lan-postuetan ere egoera berdina erreproduzitzen da.

Lan-munduko hizkuntza-paisaian ere erdara nagusi: langileentzat ohar, karteldegi, informazio, laneko prebentzio ekipo indibidual zein seinale eta ohar kolektiboetan.

304-2019

Europa Institutuak formazio saioak eskaintzen ditu Nafarroan. Horien berri ematen duen kartela gaztelania hutsean ageri da eta bertako hizkuntzan, euskaraz, ez du batere informaziorik ematen. Nafarroako Gobernuaren Lansare zerbitzuarekin batera antolatzen dira, gainera.

Lan-hitzarmenetan zein bestelako araudietan euskarari dagozkion arauak izan arren, enpresek behin eta berriz egiten dituzte arau horien ez betetzeak, eta urraketa horiek ez dute inolako ondoriorik eragiten.

296-2019(1)

Fabrikako Barne hitzarmenean jasota dugu 30. artikuluan, langileei egindako jakinarazpen oro eta informazio-panel guztietan euskara ere erabili behar duela, gutxienez bi hizkuntzatan informatu behar gaituztelarik. Beti hitz onak baina enpresaren aldetik gauza oso gutxi egin dira, kartel batzuk eta informazio batzuk euskaraz ere jartzen ditu baina oso gutxi.

Kasu batzuetan, langileen euskara ezagutza-maila ez da izaten lan-jardunean euskaraz ez egitearen arrazoia, lan-ohituretan erdara ezarrita egotea baizik.

Curso Online GRATUITO

ECONOMÍA SOCIAL Y GESTIÓN PÚBLICA

EDICIÓN 2019
26/04/2019 - 28/06/2019

Este curso tiene como objetivo, poner al alcance de los participantes –e, indirectamente, de la sociedad vasca en su conjunto- los elementos necesarios para obtener un amplio conocimiento y capacidad de reflexión en la relación entre cooperativismo-economía social y organismos públicos, tanto desde la perspectiva de las oportunidades que ello abre para el desarrollo cooperativo como de las que ofrece para la mejora de la gestión pública.

INSCRIPCIÓN
Teléfono: 943250104
Correo electrónico: ekai@ekaicenter.eu

UNED · BERGARA · EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO · Ekai GROUP

LAN ETA JUSTIZIA SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y JUSTICIA

474-2019

Lan arriskuen prebentzio plana, langileen osasun azterketa eta bestelako txostenak euskaraz izateko eskatu eta ezinezkoa dela erantzun digute.

Lan munduak gure bizitzetako denboraren parte handi bat hartzen du eta pertsonon segurtasun eta osasuna ere barnebiltzen duen alorra izanik, garrantzitsua da hizkuntza-eskubideak lan munduan ere errespetatuak izaten daitezen lortzea.

Enpresa batzuek bezeroari begirako neurriak hartu nahi dituzte barne-funtzionamenduari dagozkienak aldatu gabe, eta horrek alde biko eskubideen urraketetara eramaten gaitu, bezeroenak erraztasun handiagoz urratzera, baina bai eta langileen eskubideen barnean hizkuntza eskubideak ez txertatzera ere.

Tresna eraginkor eta konpromiso sendoagoak falta dira bai enpresen arauetan hizkuntza-eskubideak txertatzeko, baina bai eta hizkuntza-eskubideei dagokien araudiaren betetze-maila ebaluatu eta neurriak hartzeko exijitze bidean ere.

Horrekin lotuta, 2019ko amaieran Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana onartu zuela iragarri zuen Eusko Jaurlaritzak; 2020-2023 epealdian euskararen erabilera lanmunduan handitu eta kontsumitzaileen dekretuan ezarritako hizkuntza-eskubideen betetze maila igotzeko asmoz. Hala ere, pausu sendoagoak eta neurri zorrotzagoen beharra dagoela deritzogu, behin eta berriz, hizkuntza-eskubideen betetze maila borondatearen esku uzten delako soil-soilik.



“Enpresa pribatu askotan langileen euskara gaitasuna bigarren mailan uzten da”



08 Kultura Aisialdia Kirola



Kultura, aisia eta kirola

Egun, kultura, aisia eta kirola gizartean pisua duten alorrak dira. Horietatik asko erakunde publikoek sustatzen dituzte, eta berebiziko garrantzia dute haur zein gaztetxoei bideratutakoak direla kontuan hartuta.

Erakunde publikoek zuzenean antolatutakoak izaten dira zenbaitetan, baina babesle edo laguntzaile bezala ere jarduten dutela kontuan izan behar dugu hizkuntza-eskubideen urraketen gaineko erantzukizuna eta kontrola eskatzerako orduan.

342-2019

Baskoniak eta 11+5 fundazioak udako kanpusen inguruko informazioa eta argibideak gaztelania hutsez bidaltzen dizkiete familiei.

305-2019

BIBE transbizkaia txirrindula proba Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Durangoko Udalak babestuta izanik ere, ez du ematen bere webgunean euskarazko informaziorik eta bere sare sozialetako komunikazioak ere erdara hutsean dira.

"Erakunde publikoek babesle edo laguntzaile bezala ere jarduten dutela kontuan izan behar dugu urraketen gaineko erantzukizuna eta kontrola eskatzerako orduan"

Kultur elkarte eta eragile sozial ezberdinen ekimenetan, zinemetako zein antzokietako karteldegi zein informazioan, jaiekin eta horiekin lotutako ekimen berezietan, museo zein eremu kulturaletako bisita gidatuetan, merkataritzarekin lotutako jardunaldietan, udan turismoari begira antolatzen diren ekimenetan, era guztietako kirol ekimen zein jarduerei dagozkien ekitaldietan izaten dira urraketak. Oro har, webgune eta karteldegiak gaztelania hutsean edo euskaraz informazio osoa eskaini gabe iragartzen diren ekimenak aurkitzen dituzte herritarrek.

394-2019

Informazioa zabaltzeko gonbidapena eginez, "Atrévete/Ausartu zaitez" proiektuaren berri ematen duen kartela jaso dut nire whathsapean. Proiektuaren izenaz aparte, kartelean ematen den informazioa gaztelania hutsean dago. Informazioa euskaraz jaso nahian webgunera jo dut. Hemen ere "se parte" atala kenduta, gainontzeko atal guztiak gaztelania hutsean. Mindu eta tristetu egiten nau pertsonen eskubideen alde eta hauen arteko berdintasuna lantzen diharduen gizatalde batek euskal hiztunak kontuan ez hartzea.

Egitasmoei ingelesezko izena jartzeko ohitura hedatzen ari da, erakunde publikoak erabaki hauen bultzatzaile izaten direlarik: Black Friday, Bay of Biscai Festival, Tunna World Capital, Biarritz Film Festival, ...

299-2019

Donostiako Udalak Txistulari taldearen kontzertua iragartzeko paratu dituen euskarrietan ez da euskara ageri.

Nafarroan bereziki zailtasunak daude bisita gidatuak euskaraz egin ahal izateko. Erakunde publikoen edo erakunde publikoek babestutako eraikinetan batik bat. Gehienetan, bisita gidatuak gaztelania hutsean eskaintzen dituzte, baina beste hizkuntza batzuetan bisita gidatuak egiteko aukera egonik ere, euskara ez da kontuan hartzen. Jasotako kexen artean batek arreta berezia deitu digu. Nafarroako Gobernuaren jabetza duen Leireko monasterio historikoa bisitatzeko adibidez, bisita euskaraz egiteak 80 euroko gain-kostua duela, atzerriko hizkuntzek duten berbera. Bisita gidatua gaztelaniaz egiteak, aldiz, 3,70 € besterik ez du balio.





Administrazioek sustatu zein babestu edo eraikin publikoetan antolatzen diren ekimen eta jarduera guztietan hizkuntza eskubideak bermatzeko betebeharra ezartzea eta hizkuntza-irizpideak errespetatzen direla ziurtatzea erakunde publikoen ardura eta erantzukizunaren parte izan beharko litzateke, besteak beste, Administrazioek kontrataziorako baldintzen bidez edo aparteko eskakizunen bidez.

Komunikabideei dagokienean 2019. urteko kexetan EITB taldeak nabarmentzen jarraitzen du. Euskal irrati telebista publikoak herrialde guztietan ematen dituen saio zein jarduera ezberdinetan urraketak izan dira, esaterako, iragarkiak gaztelania hutsean ematea, antolatzen diren jarduera ezberdinetan hornitzaile eta kontratatutako enpresek hizkuntza-eskakizunik ez izatea, herritarrei helarazitako mezuak gaztelania hutsean egotea... Are gehiago, asteburuetan, euskarazko albistegiak askoz ere laburragoak dira euskarazko telebista-katean.

403-2019

Larunbat gauean ETB albistegiak: Euskarazkoak 14 minutuko iraupena. Gaztelaniazkoak, 43 minutu eta 49 segundokoa. Euskaldunontzat hiru aldiz albiste gutxiago.

Kate publikoak izanik berebiziko ardura dute euskarazko programazio zabala eskaintzeko, eta euskarazko entretenimendua sortzeak berebiziko garrantzia du. Hala ere, azken urte hauetan atzerapausoak nabaritu ditugu, euskarazko bikoizketa zerbitzuaren egoera, sektorean eman den euskarazko eskaintzaren aldeko inbertsio faltaren seinale nabarmena dela esan daiteke.

Irrati eta telebista publikoetatik harago, orokorrean aisiara bideratutako hedabideetan euskararen presentzia oso murritza da (zenbait hedabide zehatz salbu). Horrela, hedabide batzuek atal zehatzen bat eskaintzen diote euskarari, baina gaztelania da nagusi.

Euskal kultura turismoan txertatzean ere euskarari toki txikia eskaintzen zaio. Balore eta kulturaren parte bezala erakutsi beharrean, apaingarri bezala zokoratua gelditzen da eta gaztelania, frantsesa eta ingelesa nagusitzen dira.

“Kate publikoek berebiziko ardura dute euskarazko programazio zabala eskaintzeko”

09 Kontsumo zerbitzuak eta interes orokorreko zerbitzuak

Kontsumo zerbitzuak eta interes orokorreko zerbitzuak



Kontsumitzen ditugun ondasunek zein zerbitzu orok hizkuntza nagusi bezala dituzte gaztelania eta frantsesa, eta azken boladan ingelesa ere gero eta gehiago ari da hizkuntza nagusi bilakatzen.

Egun indarrean dauden legedi eta araudiak kontsumo-gai guztietan gaztelania eta frantsesa bermatzera eta babestera bideratuta daude. Hortaz hizkuntza bi horien presentzia soilik dago legez behar den bermeak eta betebeharrak babestua.

Produktu ororen informazio etiketetetan hizkuntza bi horien erabilera araututa dago eta, horiek bete ezean, enpresek ondorioak izaten dituzte. Eskaintzen diren bestelako hornidura zein zerbitzutan ere argiak dira gaztelania eta frantsesa erabiltzearen betebeharra arautzen duten legediak.

Hizkuntza indartsu horiek arau bitartez ere bermatzen dute haien presentzia etiketetan, argibideetan eta, oro har, kontsumo-harremanetan. Arau bitartez etiketatzen dira produktuak eta, horrela egin ezean, ondorioak eragiten ditu enpresetan zein entitateetan.

Euskal Autonomia Erkidegoan Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren 6/2003 Legea dago indarrean. Lege hori garatzeko Eusko Jaurlaritzak 123/2008 Dekretua onartu zuen, pertsona kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzkoa. 2019an kontsumitzaileen legedia aldatzeko prozesua hasi zuen Jaurlaritzak, baina kontsumo-gaietako hizkuntza-erregulazioari dagokionean, aldaketarik ez. Hartara, hizkuntza-eskubideei buruzko Dekretuaren artikuluak ez betetzeak ez die inongo ondorio administratiborik ekartzen enpresei zein bestelako entitateei.

Dekretu horrek ahozko zein idatzizko komunikazioan betebeharrak ezartzen dizkie Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan jarduten duten denda-kate handiei, komunikazio-operadoreei, garraio zerbitzuetako enpresei, entitate finantzarioei, energia elektrikoa, petrolio-erregaiak eta gas naturala hornitzen duten enpresei, etxebizitzak saldu edo alokatzen dituztenei edo eraikuntza-obren sustatzaileei.

“Legedi eta araudiak kontsumo gai-guztietan gaztelania eta frantsesa bermatzera eta babestera bideratuta daude”

Betebehar horiek praktikan ez direla egikaritzen esaten digute herritarrek, eta hainbat arlotako urraketak helarazten dizkigute.

578-2019

EDP hornitzailearekin harreman hizkuntza euskara dudan arren, gutun bat eta SEPA agiri bat gaztelania hutsean bidali didate.

Hizkuntza-paisaian ere ohikoak izan dira urraketak: karteldegia, seinaletika, informazio-oharrak zein herritarrei bidaltzen zaizkien gutunak.

Herritarrekiko arretari dagokionean ere, kexa ugari jaso ditugu. Enpresa eta hornitzaile askoren arreta-zerbitzuek ez dituzte bermatzen hizkuntza-eskubideak, herritarrek jakinarazi bezala. Merkataritza-gune handietako kutxa zein bestelako zerbitzuak eskaintzen dituzten langileek ezintasunak dituzte zerbitzua euskaraz eskaintzeko.

687-2019

Bezeroaren arretarako zerbitzura idatzi nuen posta elektronikoz faktura berriz eskatzeko eta bi erantzunak, jasotzearena eta faktura bidaltzekoa erdara hutsezkoak izan ziren.

Merkataritza marka handi batzuek beraien sare sozialetan gaztelania hutsa erabiltzeko erabakia hartu dute.

Ahozko harremanetan edota komunikazioan euskaraz mintzatzeko ezintasunaz ere kexatu dira herritarrak.

707-2019

Orange konpainiako komertzial baten telefono deia jaso dot, gaztelaniaz noski, eta esan diot ezer pertsonala ez dela, baina euskaraz dakien saltzaile batek deitzea nahi dudala. Erantzuna: "usted me está entendiendo perfectamente, estamos en España y no me diga tonterias" ondoren eskegi egin dit erantzuteko aukerarik eman gabe.



Beste joera bat ere nabaria da, hain zuzen ere, ostalaritzan ematen ari dena. Izan ere, taberna, jatetxe zein alojamenduetan euskararen presentzia gero eta murritzagoa da. Gaztelaniaz gaindi, ingelesa, frantsesa zein bestelako hizkuntzetan eskaintzen dira zerbitzuak, baina euskararen arrastorik ez- Gehien jota azken hizkuntza bezala txertatzen da, eta horietarik askotan euskara ez zuzena erabiltzen dute, ulergaitza..

Turismoari begirako zerbitzuetan kanpora begirako hizkuntzak kontuan hartzen dira, baina ez da kontuan hartzen zerbitzu berdinak euskal herritarrek ere kontsumitzen dituztela. Euskal Herrian barne-mailako "turismo" edo aisiarekin lotutako zerbitzuetan euskal herritarrei zuzendutako zerbitzuaren kalitatea hizkuntza-eskubideek ere berma ditzake.

182-2019

Burger King-en ez dute euskarazko ez arretarik ez informaziorik ematen.

695-2019

Ramuntcho hotelak frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez eskaintzen zuen informazioa. Aldiz, euskaraz ez zegoen inolako informaziorik.

Karteldegia, iragarkiak, webgunea zein ahozko zerbitzuan kexak izan dira beraz.

Eusko Jaurlaritzak onartutako Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Planak hiriburuak (merkataritza-gune handi gehien batzen dituzten eremuak direlako) eta bestelako kontsumo-zerbitzuak eskaintzen dituzten zonaldeak barne hartzeak aurrerapausoren bat ekar dezake, kontsumo-zerbitzuaren eta ondasunen gaineko enpresetan neurriak hartzerakoan. Hala ere, urraketa egiteak ondoriorik ez izateak beste behin ere borondatearen mende uzten du legea betetzea, eta plan horrek kontsumo zerbitzuetan zenbateraino eragingo duen ez dakigu.

Nafarroako Foru Erkidegoan ez dago kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak aitortzen duen inolako araurik. Kontsumitzaile eta erabiltzaileei zuzendutako komunikazio eta informazio gehiena gaztelaniaz izaten da. Hornitzailene zein bestelakoen gutun eta bestelako fakturak ere gaztelania hutsean izaten direla kexu dira herritarrak.

181-2019

Urdiango herrian zuntz optimoa jarri behar dute, eta bilera informatiboa iragartzeko eskuorria erdara hutsean bidali dute.



Arreta berezia deitzen dute hornitzaile ezberdinekiko telekomunikazio enpresei dagozkien kexek. Telefono bidezko arreta eman edo salmentak egiteko deiak, zuzeneko arreta dendak, karteldegi eta iragarkiak zein bezeroei bidaltzen zaizkien gutunetan hizkuntza-eskubide urraketak izaten dira.

545-2019

Orange telefono konpainiako operadore baten deia jaso dut eskaintza komertziala egiteko. Telefono konpainia batekin kontratua egitekotan eskaintzak eta zerbitzuak euskaraz jaso nahi nituzkeela esanda barre algaraka hasi da "esto es España" esanez. Euskarazko zerbitzua ukatu eta eskubide horri trufaz erantzun dio.

Herritarrentzako oinarrizko eta derrigorrezko zerbitzuak diren IAT-ITV bezalako zerbitzuetan hizkuntza eskubideen urraketek jarraitzen dute Nafarroan batik bat.

374-2019

Ibilgailuaren azterketa teknikoa pasatzeko hitzordua konfirmatzeko sms-a bidali didate. Gaztelania hutsean, nahi eta euskara nire herrian ofiziala izan.

Frantziako Estatuak, berriz, hizkuntza bakarrari, frantsesari, aitortzen dio existentzia eta Nafarroakoaren antzekoa da Ipar Euskal Herriko herritar euskaldunen egoera.

Erabat sistematikoak dira, beraz, herritarrek jasaten dituzten hizkuntza-eskubideen urraketak.

"Kontsumitzaile eta erabiltzaileei zuzendutako komunikazio eta informazio gehiena gaztelaniaz edo frantsesez izaten da"

10 Ondorio nagusiak

Ondorio nagusiak

Behatokiaren diagnosia berretsi du Europako Kontseiluak

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiegu euskaraz bizitzeko nahiari determinazioz eusten dioten herritarrei, haien oztopoen berri emateagatik. Gure txostenak badu oinarrizko informazio-iturri bat, hain zuzen ere, herritarren bizipenak.

Herritarren kexak dagozkien erakunde eta enpresa publiko zein pribatuetara bidaltzeaz gaindi, Europako Kontseiluan ere aurkezten ditugu. 2019ko abenduan, Europako Kontseiluak argitaratu zituen Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren bosgarren ebaluazioari dagozkion gomendioak, bai Ministroen Batzordearenak bai Adituen Batzordearenak.

Espainiako Estatuak aurreko ebaluazioan euskarari eragiten dioten gomendioetatik bat bera ere ez duela bete ondorioztatu genuen. Ondorioz, horrek auzitan jartzen du Estatuaren borondatea, berak berretsi zuen nazioarteko itunarekiko.

Gogoratu behar da Gutunak jasotzen dituen eremukako konpromisoak euskara ofiziala den eremuetan besterik ez direla aplikatzen, eta halaxe jasotzen du berriz ere txostenak. Hartara, Nafarroari dagokionez, legeak ezarritako eremu euskalduna besterik ez da kontuan hartzen.

Horren karira, gogoratu behar da Kontseiluaren eta Behatokiaren presioen ondorioz, Gutunaren lehen ebaluazioa izan zenean, Ministroen Batzordeak eskaera zehatza egin ziola Estatuari legeak ezarritako eremu mistoan Gutunaren III. atala aplikatzeko. Gomendio hori duela hamalau urte argitaratu arren, ez da inolako erabakirik hartu.

Abenduan argitaratutako txostena irakurri ondoren, ondorio argia atera du Behatokiak. Europako Kontseiluak agerian utzi dituen gabeziek bat egiten dute Behatokiak 2019an kudeatu dituen kasuek eta eskubide urraketek utzitako ondorioekin. Eta, horrekin aurtengo txostenean bi ondorio nagusi atera ditzakegula iruditzen zaigu:

- Eskubideen egoera edo argazkia ez da aldatzen argazkilaria aldatuta ere.
- Herritarren jarrera aktiboa nahitaezkoa da benetako egoera irudikatu ahal izateko.

Horrela, aurtengo txostenaren ondorioak Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak ateratako ondorioekin alderatu nahi izan dugu:

> **“Europako Kontseiluak agerian utzi dituen gabeziek bat egiten dute Behatokiak 2019an kudeatu dituen kasu eta ondorioekin”**

HEZKUNTZA

Unibertsitateren baten aurrerapausoak egon arren, oraindik ez dira nahikoak. Horretaz gain, geurean ere jaso bezala, beharrezkoa da graduondoko ikastaroetan euskarazko eskaintza emendatzea.

JUSTIZIA

Botere Judizialaren Lege Nagusiaren 231 artikuluak Gutunaren 9. artikulua bete ahal izatea galgatzen du. Artikulu horren arabera hizkuntza koofizialen erabilera baimentzen da alderen batek objekziorik jartzen ez badu. Printzipio horretan hizkuntza koofizialen erabilera debekatu ez arren, itzulpenen beharra dakar, bai eta prozedurak luzatzea ere. Gainera, bereizkeria eragiten du hizkuntza ofizial bat edo bestea erabili nahi duten herritarren aretan. Egoera hori muga da eremu judizialean hizkuntzen koofizialtasuna aplikatzeko.

Gutunaren 9. artikulua aplikatzeko eremu judizialeko langileek hizkuntza koofizialetan lan egiteko hizkuntza horien ezagutza berma zezatela eskatu arren, egoera orokorra ez da aldatu.

Behatokiak kudeatutako kasuen arabera ere, Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago bermatuta prozedura kriminal, zibil edo administratiboa euskaraz bideratuko denik alde batek hala eskatuz gero. Botere Judizialaren Lege Organiko aldatzeko gomendioak bete gabe jarraitzeak hori betikotzen du.

Legeak ez die epaileei zein magistratuei euskararen nahitaezko ezagutza ezartzen eta horrek konpromisoa betetzea ez du posible egiten. Langile elebidunen kopurua igotzeko neurriak ere ez ditu behar bezala hartu Espainiako Gobernuak. Legezko neurriak eta neurri praktikoak inplementatzen jarraitu beharra exijitzen zaio Autonomia Erkidegoetako justiziaren eremuko langilearen proportzio egoki batek hizkuntzen ezagutza egokia bermatzeko.

Behatokia bere sorreratik ari da egiaztatzen justiziaren eremua beltzune dela euskaldunon eskubideen bermeari dagokionez, eta hainbatean beste eskubide batzuk ere urratzen direlako, besteak beste, defentsa-eskubidea edo babes eragingarrirako eskubidea.

“Behatokia bere sorreratik ari da egiaztatzen justiziaren eremua beltzune dela euskaldunon eskubideen bermeari dagokionez”

ESTATUKO ADMINISTRAZIOA

Estatuko administrazioari autonomia erkidegoetan hizkuntza koofizialen presentzia egokia bermatzeko eskatu zaio hainbatean. Izan ere, hizkuntza koofizialen presentzia zerbitzu publikoetan, bereziki osasun eremuko erakundeetan, baxua izaten jarraitzen du.

Estatuak autonomia erkidegoetan duen administrazio periferikoan euskara dakiten langileen kopurua oso baxua da (%14) eta horrek Hizkuntz Eskubideen Behatokian administrazio horri lotuta jasotzen ditugun kexa askorekin lotura zuzena du.

Bestalde Europako txostenak dioenaren arabera, egia da, bai, Gobernuko webguneek euskarara aldatzeko aukera eskaintzen dutela, halere, Behatokiaren oharrak bere egin dute adituek, bigarren mailako tituluetara arte besterik ezin baita euskaraz erabili kasu gehienetan. Beste zenbaitetan, Behatokian jasotako herritarren kexen arabera, ez da informazio kopuru berdina eskaintzen eta hizkuntza traketsa ere erabiltzen da.

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOA

Administrazioaren atalik nagusiena Iruñean dago, eta bertan hizkuntzak ez du estatus ofizialik. Europako txostenak legeak ezarritako eremu euskalduneko herritarren hizkuntza eskubideak bermatuta daudela esan arren, Behatokian 2019an jaso ditugun hainbat kexek, argi uzten dute ez daudela behar bezala bermatuta. Izan ere, herritar hauek legeak ezarritako eremu euskaldunean bizi arren, administrazio zentralaren aldetik oztopoak izaten jarraitzen dute euskarazko dokumentuen baliozkotasunari dagokionean edo eremu horretatik kanpo Nafarroako lurralde osoan ez zaie behar bezalako bermerik eskaintzen. Adibide argia dugu, legeak ezarritako eremu euskalduneko herritarrek Nafarroako hiriburuan egin behar dituzte hainbat tramite eta zenbait zerbitzu jasotzeko ere Iruñeara bideratzen dituzte. Hala nola, osasungintzako espezialistengana joaterakoan, NANa berriztera joaterakoan, haur jaio-berria erregistratzean... euskarazko agiriak onartzeko oztopoak izan dituzte eta zerbitzua eta harremana ere ezin izan dute euskaraz egin, beraz, hizkuntza-eskubideak ez daude bermatuta legeak ezarritako eremu euskaldunean.

Euskararen erabilera administrazio publikoetan arautzen duen 103/2017 Dekretuaren helburua euskararen erabilera lurralde osoan hobetzea da, legeak ezarritako eremu ez-euskalduna barne, baina helegite bati erantzunez, 2019an ateratako sententziak asko murriztu ditu ezartzen zituen neurri nagusiak. Atzerriko hizkuntzen ezagutza euskararen ezagutza baino positiboagotzat hartzen jarraitzen da zerbitzu publikoetako lanpostuen eskaeretan.

Gainera, egun, lanpostu bakar batzuek besterik ez dute Nafarroako Gobernuko Administrazioan eta osasunaren eremuan euskararen hizkuntza-gaitasuna nahitaezko.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA

Ohiko beltzuneak jaso ditu Europako Kontseiluko txostenak, eta ohiko beltzune horiek jasotzen dituzte Behatokiaren 2049ko datuek, Ertzaintzari dagokionez, herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzen ez zituzten gertaerak jaso ziren, bai eta poliziak gehiegizko jarrera agertzen zituztenak ere. Hori erabat lotua dago euskara ez dakiten lanpostu kopuruarekin, ertzainen %54ak ez du hizkuntza gaitasuna egiaztatuta.

Europako Kontseiluko txostenaren arabera, hizkuntzaren erabilera osasun-eremuan hobetu da. Halere, ez dago argi euskara ezagutzen duten profesionalek administrazio publikoan lan egiten duten edo zenbat dauden zuzenean lotuta osasun-asistentziari. Aurrerapausoak izan dira historia klinikoak euskarara itzultzeko eta laborategi-txostenak estandarizatzeko. Oraindik hala ere, eta Behatokiko kasuak horren lekuko dira, egindako pausuak ez dira nahikoak herritarren hizkuntza-eskubideak behar bezala bermatzeko, honen adibide argia delarik zenbait herritan pediatriako profesional euskaldunen falta.

HEDABIDEAK

Euskal Autonomi Erkidegoan 2019an instituzioek euskararen normalizazio eta hedapenerako hitzarmena sinatu zuten hedabideen bideragarritasuna bermatze aldera.

Euskal Autonomi Erkidegoari dagokionean, Europako txostenaren arabera, Gobernuz Kanpoko Erakundeek kezka agertu zuten euskarazko eta gaztelaniazko albistegien iraupenetan dagoen desorekaren inguruan. Behatokiak ere 2019an ere hainbat kexa izan zuen horren inguruan.

EKONOMIA- ETA GIZARTE-BIZITZA

Nafarroan, enpresek parte hartu zuten hizkuntza-estrategiaren inplementazioan. Kontratuen Foru Lege berriak (2/2018) azpikontratatzen diren enpresei derrigortasuna jarri die euskara erabiltzeko, kontratuen betetzea publiko orokorrerako oinarrizkoa denean. Halere, Behatokiak kudeatutako dosierrei erreparatzen badiogu, Lege horrek ondorio gutxi izan du euskaldunon eskubideen bermean.

Euskal Autonomia Erkidegoan Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren 6/2003 Legea dago indarrean. Lege hori garatzeko Eusko Jaurlaritzak 123/2008 Dekretua onartu zuen, pertsona kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzkoa. 2019an kontsumitzaileen legedia aldatzeko prozesua hasi zuen Jaurlaritzak, baina kontsumo-gaietako hizkuntza-erregulazioari dagokionean, aldaketarik ez. Hartara, hizkuntza-eskubideei buruzko Dekretuaren artikuluak ez betetzeak ez die inongo ondorio administratiborik ekartzen enpresei zein bestelako entitateei. 2019ko txostenean eremu sozioekonomikoan jaso diren kexek ere hori berresten dute.

Beraz, oraingoan, modu desberdinean aurkeztu nahi izan ditu Behatokiak 2019 urteko txostenaren ondorioak. Arestian esan bezala, urtearen amaieran, Espainiako Estatua bosgarrenez ebaluatu ostean, Europako Kontseiluaren Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren betetze mailaren ondorioak publiko egin zituen. Behatokiak Gutuna berretsi zenetik aurkeztu izan ditu txostenak Gutunaren betetze-maila zer-nolakoa den erakusteko. Hau da, herritarren bizipenak baliatu ditu konpromisoak betetzen ziren ala ez egiaztatzeko.

Bosgarren ebaluazioan ere horrela egin genuen, eta herritarren eskubide-urraketetan oinarritutako txostena igorri genuen Estrasburgora. Halaber, Adituen Batzordea Iruñean izan zenean bilera egin genuen.

Afera da, Ministroen Batzordeak egindako gomendioak, eta are gehiago Adituen Batzordeak egindakoak irakurrita, Behatokia ohartu dela antzeko ondorioetara iritsi garela, bai nazioarteko instituzioek, bai eta tokiko gizarte eragileok ere.

Horrek, beraz, urrats berriak egiteko konpromisoa eragin beharko lioke Gutunaren jagole nagusi izan beharko lukeen Gobernuari, eta halaxe egitea espero du Behatokiak seigarren ebaluazioan aldaketa kualitatiboak egon daitezen.

Azkenik, gogoan izan behar dugu Frantziako Estatuak Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna sinatu badu ere, ez duela berretsi. Hortaz, ezin uztar daitezke Behatokiaren ondorioak Gutun horren balizko ebaluazioarekin. Ipar Euskal Herrian Frantziar Estatuak gutxitutako hizkuntzekiko duen aitorpen eta babes faltak, agerian utzi ditu 2019an ere herritarren beraien hizkuntza erabiltzeko nahia izan arren ezintasun ugari dituztela, bai edozein administraziorekin harremanak izatean zein eremu sozioekonomikoan, non hizkuntza-eskubideen aitortza hutsaren hurrengoa den. Hizkuntzarena gutxi batzuen afera kultural eta landa eremu zehatz batzuekin lotzen da, baina ez eskubide bezala egin beharreko aitortzarekin, izan ere, Frantziar Estatuak ondare kulturalaren aitortza egiten dio baina Errepublikako hizkuntza bakarraren aitortza Frantsesak soilik du.

Estatus, babes eta aitortza falta honen aurrean euskaraz bizi nahi duten herritarrek oztopo ugari gainditu behar dituzte, 2019an jaso dugun bezala, oztopo horiek salba-ezinak egiten direlarik Frantziar Estatuko administrazioen jarreragatik. Hezkuntzan euskaraz ikasteko aukera izan eta erabakia hartzen duten herritarrek ezin dute ikasketa prozesua berdintasunean euskaraz aurrera eraman, 2019an ere brebeta eta baxoa euskaraz egiteko ikasleek izan dituzten ezintasun eta oztopoak dira horren adierazgarri. Beharrezkoa da egoera honi buelta emateko Frantziako Estatuak gutuna berretsi eta honen inguruko neurriak hartzea.

11 Datuak

2019ko datuak

MOTA	KOPURUA
Izaera gabeak	1
Kontsultak	10
Kexak	661
Zoriontzeak/ Esker ona	50
Iradokizunak	15
Orotara	737

Sektore sozioekonomikoko datuak

EREMUA	KOPURUA
Aisialdia, Kultura, Kirola	26
Aseguru etxeak eta finantzak	22
Eragileak Alderdi politikoak, sindikatuak, mundu asoziatiboa	24
Industria, ekonomia, ikerketa	4
Lan mundua	3
Interes orokorreko zerbitzuak Garraioa, energia, telekomunikazioa	25
Merkataritza handia / Elikadura / Ostalaritza	73
Merkataritza txikia / Profesionalak eta zerbitzuak	28
Orotara	205

Sektore publikoko datuak

ERAKUNDEA	KOPURUA
Espainiako Estatuko Administrazioa	36
Eusko Jaurlaritza	138
Nafarroako Gobernua	71
Arabako Foru Aldundia	6
Bizkaiko Foru Aldundia	23
Gipuzkoako Foru Aldundia	3
Ipar Euskal Herriko Udalak	8
Nafarroako Udalak	21
Arabako Udalak	26
Bizkaiko Udalak	75
Gipuzkoako Udalak	37
Mankomunitateak	8
Eusko Legebiltzarra	1
Euskal Hirigune Elkargoa	2
Bizkaiko Batzar Nagusiak	1
Orotara	456

Dosierren bilakaera

KASU KOPURUAREN BILAKAERA 2002-2019



HIZKUNTZ ESKUBIDEEN
BEHATOKIA